

CONCURSO DE CARTELES

“ASTE NAGUSIA 2026”

El Área de Igualdad y Fiestas del Ayuntamiento de Bilbao convoca Concurso a fin de elegir el cartel anunciador de **ASTE NAGUSIA 2026**, con arreglo a las siguientes

BASES

1. Podrán participar profesionales y amateurs del diseño gráfico de cualquier nacionalidad.
2. Las obras deberán ser **originales e inéditas**. El color y la técnica serán libres.
3. Podrán presentarse hasta un **máximo de dos obras** por participante.
4. Las obras serán en **formato vertical: 50 cm x 70 cm**.
5. Se establecen un **único premio de 3.000 euros**.
6. El **texto** correspondiente al cartel será:

BILBAO 2026
ASTE NAGUSIA
Abuztuak 22 – 30 Agosto

7. **Se valorará la diversidad** en la representación de género y orientación sexual, origen y cultura, diversidad funcional, edad, clase social, corporalidad, etc., evitando roles y estereotipos.
8. En el caso de que se empleen sistemas de **Inteligencia Artificial (IA)** para la elaboración del cartel, el autor o autora de la imagen deberá informar de la utilización de herramientas de creación basada en la Inteligencia Artificial, detallando el nivel de su intervención en la formalización del cartel y garantizando el respeto a los derechos de propiedad intelectual.

Respecto a su valoración, la intervención humana prevalecerá sobre el uso de la inteligencia artificial (IA).

9. **Derechos de autoría.** La persona autora deberá tener correctamente gestionados los derechos por la utilización de cualquier fotografía, ilustración o recurso gráfico que estén presentes en el cartel. En el caso de que se hayan utilizado imágenes o plagios de imágenes de otras obras, la persona autora será la responsable única ante cualquier incidencia que por estos motivos se pudiera producir, quedando retirada la obra de inmediato.

PRESENTACIÓN

10. **Fecha límite presentación online:** 23:59 horas del 31 de mayo de 2026.
11. En la propia página de inicio de la web www.bilbao.eus se habilitará un **enlace** con el título “Concurso Cartel Aste Nagusia 2026”, que llevará directamente al formulario de inscripción. En el mismo, se rellenarán todos los datos personales del participante y permitirá subir un JPG de 1 Mb máximo. (*Nombrar con el título o lema en minúsculas*).
- Así como, un PDF en alta resolución (300ppp) a tamaño final de impresión (formato vertical, 50cm x 70cm) con los textos vectorizados y espacio de color CMYK. (*Nombrar con el título o lema en mayúsculas*).
12. Las obras deberán estar **identificadas con un Título o Lema**.
13. El archivo digital presentado tendrá la consideración de **obra final**.

FALLO

14. **El jurado** designado por la Área de Igualdad y Fiestas estará compuesto por 9 personas: 5 relacionadas con el mundo del arte, diseño gráfico y la comunicación del entorno, 3 representantes de la Corporación (incluida la Presidenta de la Comisión de Fiestas) y 1 representante de Bilboko Konpartsak.
15. **Selección del cartel ganador.** El jurado seleccionará 6 carteles, que serán expuestos en la web del Ayuntamiento www.bilbao.eus y en un espacio público a determinar, a partir del día 15 de junio de 2026. Tras lo cual se abrirá un periodo de votación hasta el 21 de junio de 2026:

- Votación popular presencial: (lugar a determinar).
- Votación popular online: www.bilbao.eus.
- Votación del jurado.

Se seleccionará el cartel que obtenga mayor puntuación sumadas las 3 votaciones mencionadas, dividiéndose de la siguiente manera: voto popular presencial 35%, voto popular online 35% y voto del jurado 30%.

El Ayuntamiento de Bilbao asumirá la impresión de los carteles, presentados en formato digital.

16. **Facultades del jurado.** El jurado podrá descalificar, en cualquier momento en el proceso de selección, todos aquellos trabajos en los que concurra alguna de las siguientes circunstancias:

- Autoría dudosa, plagio, imitación, falta de originalidad.
- Que atenten contra la dignidad de las personas.

Si la descalificación se efectúa después de haberse iniciado la votación popular, esta continuará con el resto de los carteles finalistas.

Sin perjuicio de las facultades que asisten al jurado, éste solo tomará en consideración las quejas o reclamaciones que se efectúen en el plazo de votación popular.

17. **El fallo del jurado será inapelable** y se dará a conocer el 23 de junio de 2026. No obstante, el jurado podrá revisar y anular el fallo si considera que concurre alguna de las circunstancias previstas en los párrafos anteriores.

Si el jurado estima que la obra requiere algún cambio por motivos técnicos, se valorará conjuntamente con la persona galardonada.

18. **El concurso podrá ser declarado desierto**, en tal caso se encargará el diseño.

CARTEL PREMIADO

19. **La persona o personas autoras** del cartel premiado podrán ser requeridas a proporcionar los elementos, tipografías y archivos utilizados en el diseño para facilitar su adaptación a los diferentes soportes, formatos y aplicaciones necesarias para su promoción y difusión.

20. **Obra ganadora.** Si la ejecución técnica del cartel requiriese alguna modificación de las tonalidades para su mejor impresión, así como la corrección de las fechas de celebración de Aste Nagusia o la corrección de errores ortográficos, el jurado podrá imponer dicha variación, previa consulta y en colaboración con la persona autora.
21. **El Ayuntamiento de Bilbao será el legítimo propietario de la obra premiada,** y de los derechos de explotación sobre la misma, así como de los derechos de reproducción, adaptación, distribución, comunicación pública y difusión en todos los soportes y plataformas presentes y futuras, sin limitación alguna y hasta la expiración de los derechos de autor.

La concesión del premio implica la cesión total de derechos contemplada en este apartado, sin necesidad de contraprestación adicional.
22. Así mismo, **tendrá derecho a la exposición y difusión pública de las obras presentadas,** entendiéndose como una cesión de derechos de carácter gratuita y en exclusiva hasta el 30 de septiembre de 2026.
23. **El Cartel premiado constituirá la imagen de la ASTE NAGUSIA 2026 en todos sus soportes.**

El hecho de participar en el presente concurso implica la aceptación total de las bases.

En lo previsto en estas bases, regirá con carácter supletorio la Ordenanza General reguladora de las bases para la concesión de subvenciones mediante convocatoria por el Ayuntamiento de Bilbao y sus organismos y entidades de derecho público, aprobado en fecha de 30 de junio de 2016 por el Pleno del Ayuntamiento y publicada en el BOB núm. 138, de 20 de julio de 2016. <https://labur.eus/XBj8n>

ÁREA DE IGUALDAD Y FIESTAS

INFORMACIÓN

- **Ayuntamiento de Bilbao / Área de Igualdad y Fiestas**
- Tel: (+34) 94 420 31 47, en horario de lunes a viernes de 08:30 a 13:00 horas.
- Email: atf@bilbao.eus.

KARTEL LEHIAKETA “ASTE NAGUSIA 2026”

Bilboko Udaleko Berdintasun eta Jaietako Sailak lehiaketa bat antolatu du, **ASTE NAGUSIA 2026**aren irudia izango den kartela aukeratzeko, hurrengo oinarrien arabera:

OINARRIAK

1. Diseinu grafikoaren profesionalak nahiz amateurrek parte hartu dezakete, edozein nazionalitatekoak direla ere.
2. Kartelak **originalak eta argitaratu gabeak** izan beharko dira. Kolorea eta teknika libreak dira.
3. Parte-hartzaile bakoitzak **2 lan** aurkeztu ditzake **gehienez**.
4. Obrak **formatu bertikalean** egin behar dira, neurri hauekin: **50 cm x 70 cm**.
5. **Sari bakarra** egongo da, **3.000 eurokoa**.
6. Kartelak **testu** hau eduki behar du:

BILBAO 2026
ASTE NAGUSIA
Abuztuak 22 – 30 Agosto

7. **Dibertsitatea baloratuko da** generoa eta sexu-orientazioa, jatorria eta kultura, dibertsitate funtzionala, adina, klase soziala, gorputz mota eta abarrekoak irudikatzean; rolak eta estereotipoak saihestuko dira.
8. Egileak **adimen artifizialeko (AA)** sistemaren bat erabiltzen badu kartela egiteko, horren berri eman beharko du. Horrez gain, tresna hori zer neurritan erabili duen eta nola zehaztu beharko du, eta jabetza intelektualaren eskubideak errespetatzen direla bermatu beharko du.

Balorazioari dagokionez, gizakiek egindako kartelak hobetsiko dira adimen artifizialaz egindakoen gainetik.

9. **Egile-eskubideak.** Egileak behar bezala kudeatuta eduki behar ditu kartelean agertzen diren argazki, ilustrazio eta baliabide grafiko guztiak erabiltzeko eskubideak. Beste obra baten irudirik erabili badu edo plagiorik egin badu, eta horregatik gorabeherarik izanez gero, egilea izango da gerta litezkeen arazoan erantzule bakarra, eta obra berehala erretiratuko da.

AURKEZPENA

10. **Lanak online aurkezteko azken eguna:** 2026ko maiatzaren 31n, 23:59etan.
11. www.bilbao.eus webgunearen hasierako orrian **esteka** bat jarriko da, “Aste Nagusia 2026 Kartel Lehiaketa” izenburuarekin, izena emateko inprimakira zuzenean eramango duena. Bertan, parte-hartzailearen datu pertsonal guztiak beteko dira eta gehienez 1 Mb-ko JPG bat igotzeko aukera emango du. *(Izenburua edo lema izango da fitxategiaren izena, letra xehez adieraziz).*
- Era berean, bereizmen handiko PDFa (300 ppp) inprimaketaren azken tamainan (formatu bertikalean, 50 cm x 70 cm), testu bektorizatuekin eta CMYK kolore-espazioarekin. *(Izenburua edo lema izango da fitxategiaren izena, letra larriz adieraziz).*
12. Obrek **Titulu edo Lema bat** eduki behar dute **identifikazio** gisa.
13. Aurkeztutako artxibo digitala **azken obratzat** hartuko da.

EPAIA

14. Berdintasun eta Jaietako Sailak izendatuko du **epaimahaia** eta 9 kide izango ditu: artearen, diseinu grafikoaren eta komunikazioaren alorreko inguruko 5 pertsona, Udaltzako 3 ordezkari (Jai Batzordeko presidentea barne) eta Bilboko Konpartsen ordezkari bat.
15. **Kartel irabazlearen aukeraketa.** Epaimahaiak 6 kartel aukeratuko ditu. Kartel horiek Udalaren www.bilbao.eus webgunean eta espazio publiko batean jarriko dira ikusgai, 2026ko ekainaren 15etik aurrera. Ondoren, bozketa-aldia hasiko da, 2026ko ekainaren 21era arte:

- Herritarren bozketa presentziala: (lekua zehazteke).
- Herritarren online bozketa: www.bilbao.eus.
- Epaimahaiaren bozketa.

Aipatutako 3 bozketak batuta puntuaziorik handiena lortzen duen kartela hautatuko da, honela banatuta: boto presentziala %35, online boto herrikoia %35 eta epaimahaiaren botoa %30.

Bilboko Udalak bere gain hartuko du formatu digitalean aurkeztutako kartelak inprimatzeko ardura.

16. **Epaimahaiaren ahalmenak.** Epaimahaiak aukeraketa-prozesuaren edozein unetan kanporatu ahalko ditu honelako arazoak dituzten lanak:

- Zalantzazko egilea, plagioa, imitazioa, originaltasun falta.
- Pertsonen duintasunaren aurkako lanak.

Deskalifikazioa herri-bozketaren ondoren egiten bada, bozketak aurrera egingo du gainerako finalistekin.

Epaimahaiak, bere ahalmenak gorabehera, herri-bozketaren epean egiten zaizkion kexa edo erreklamazioak bakarrik hartuko ditu aintzat.

17. **Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da** eta 2026ko ekainaren 23an jakinaraziko da. Hala eta guztiz ere, epaimahaiak epaia berrikusi eta baliogabetu ahal izango du, baldin eta aurreko paragrafoetan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen bada.

Epaimahaiak uste badu arrazoi teknikoengatik obrak aldaketaren bat behar duela, saritutako pertsonarekin batera baloratuko da.

18. **Lehiaketa hutsik geratu liteke.** Kasu horretan, diseinua enkargatu egingo da.

SARITUTAKO KARTELA

19. Saritutako kartelaren **egileei** eskatu ahal zaie diseinuan erabilitako elementuak, tipografiak eta fitxategiak eman ditzatela, sustapenerako eta zabalkuntzarako behar diren euskarri, formatu eta aplikazioei egokitzeko.
20. **Obra irabazlea.** Kartela teknikoki gauzatzeko tonalitateak aldatu behar badira hobeto inprimatu ahal izateko, eta Aste Nagusia egiteko datak zuzendu behar

badira edo ortografia-akatsak zuzendu behar badira, epaimahaiak aldaketa hori inposatu ahal izango du, aldez aurretik egileari kontsulta eginda eta harekin lankidetzan arituta.

21. **Bilboko Udala izango da saritutako lanaren jabe legitimoa**, baita obraren ustiapen-eskubideena ere. Berarenak izango dira, halaber, erreprodukzio, egokitze, banaketa, komunikazio publikoko eta zabalkuntzako eskubide guztiak, oraingo eta etorkizuneko euskarri eta plataforma guztietan, inolako mugarik gabe, harik eta egile-eskubideak iraungi arte.

Saria emateak berekin dakar atal honetan jasotako eskubide guztiak osorik lagatzea, inolako ordain gehigarririk jaso beharrik gabe.

22. Modu berean, **aurkeztutako obren erakusketa eta zabalkuntza publikorako eskubidea izango du**. Hori eskubideen doako eta bakarreko lagapena izango da, 2026ko irailaren 30era arte.
23. **Saritutako kartela ASTE NAGUSIA 2026aren irudia izango da, euskarri guztietan.**

Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin dakar oinarri guztiak onartzea.

Oinarrietan aurreikusi ez den orotan, Bilboko Udalaren eta zuzenbide publikoko bere organismo eta entitateen deialdiaren bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra aplikatuko da, ordezeko modura. Ordenantza hori 2016ko ekainaren 30ean onartu zuen Bilboko Udalbatzarrak, eta 2016ko uztailaren 20an argitaratu zen BAOn (138. zenbakia). <https://labur.eus/XBj8n>

BERDINTASUN ETA JAIETAKO SAILA

INFORMAZIOA

- **Bilboko Udala / Berdintasun eta Jaietako Saila**
- Tel: (+34) 94 420 31 47, astelehenetik barikura, 08:30etik 13:00etara bitartean.
- Helbide elektronikoa: atf@bilbao.eus.